Bestelako Xedapenak

URAREN EUSKAL AGENTZIA

2124

EBAZPENA, 2011ko martxoaren 21ekoa, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiarena, zeinen bidez jakinarazten baita urari eta ur-sistemei loturiko berrikuntza, ikerketa eta garapen programetarako eta egitasmoetarako diru-laguntzetarako deialdia.

Uren ekainaren 23ko 1/2006 Legeak Uraren Euskal Agentzia sortu eta arautzen du II. kapituluan, zuzenbide pribatuko erakunde publiko gisa, EAEn uraren politika bideratzeko bitarteko nagusi izateko. Alde horretatik, Agentzia erakunde arduraduna izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari uraren alorrean dagozkion eskumenen eremuan, eta beraz, aipatutako 1/2006 Legearen 7. artikuluan ezarritako zereginak beteko ditu.

Zeregin horien artean daude: zientzia eta teknikaren laguntza bultzatzea; urari eta ur-sistemei loturiko berrikuntza, ikerketa eta garapen programak landu eta gauzatzen laguntzea; eta uretako ekosistemetan klima-aldaketak eragin ditzakeen ondorioak eta ondorio horiek arintzeko beharrezkoak diren ekintzak ebaluatzea.

Helburu horiek betetzeko, jarraipena ematen zaio laguntza-lerro horri, hain zuzen ere, lerro horren bidez, urarekin eta ur-sistemekin zerikusia dute berrikuntza, ikerketa eta garapen programak eta egitasmoak garatu nahi baitira, 2010ean hasita.

Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusi naizen honek, abenduaren 18ko 240/2007 Dekretuaren bidez onartutako Agentziaren Estatutuetako 7.2.h) artikuluak emandako eskumena erabiliz, honako hau

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Helburua.

1.1.– Oinarri horien helburua diru-laguntzak emateko finkatuko diren baldintzak arautzea da. Dirulaguntzen helburua, berriz, lurrazaleko eta lurrazpiko hidrologiari, hidraulikari eta uretako ekosistemei loturiko berrikuntza, ikerketa eta garapen programak eta egitasmoak gauzatzeko EAEko ekimenen gastuak ordaintzea da.

1.2.– Aurreko atalean ezarritakoaren arabera, ondoko jarduera hauei eman ahal izango zaie dirulaguntza:

Otras Disposiciones

AGENCIA VASCA DEL AGUA

2124

RESOLUCIÓN de 21 de marzo de 2011, del Director General de la Agencia Vasca del Agua, por la que se hace pública la convocatoria de subvenciones para programas y proyectos de innovación, investigación y desarrollo relacionados con el agua y los sistemas acuáticos.

La Ley 1/2006, de 23 de junio, de Aguas, crea y regula en su Capítulo II la Agencia Vasca del Agua como ente público de derecho privado, llamado a constituirse en el instrumento central para llevar a cabo la política del agua en Euskadi. En este sentido, la Agencia, como entidad responsable en materia de aguas en el ámbito de las competencias que corresponden a la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, ejerce las funciones indicadas en el artículo 7 de la citada Ley 1/2006.

Entre estas funciones se encuentran, entre otras, las de estimular la colaboración científica y técnica, colaborar en la elaboración y ejecución de programas en materia de innovación, investigación y desarrollo relativos al agua y los ecosistemas acuáticos, y evaluar los posibles efectos derivados del cambio climático en los ecosistemas hídricos, así como las actuaciones necesarias para mitigar dichos efectos.

Precisamente, es para el cumplimiento de estos objetivos, para lo que se da continuidad a la presente línea de ayudas para programas y proyectos de innovación, investigación y desarrollo relacionados con el agua y los sistemas acuáticos, iniciada en 2010.

En virtud de la competencia que me otorga el artículo 7.2.h) de los Estatutos de la Agencia Vasca del Agua, aprobados mediante el Decreto 240/2007, de 18 de diciembre,

RESUELVO:

Artículo 1.– Objeto.

1.1.– La presente Resolución tiene por objeto regular las condiciones que regirán la concesión de subvenciones cuyo objeto es sufragar los gastos derivados de las iniciativas que permitan elaborar programas y proyectos de innovación, investigación y desarrollo relacionados con la hidrología superficial y subterránea, hidráulica y los ecosistemas acuáticos y que se lleven a cabo en el ámbito de la CAPV.

1.2.– Se considerarán actividades objeto de subvención, conforme a lo establecido en el apartado anterior:

– Azaleratzen diren lehentasunezko gai kutsatzaileen gaineko azterketak.

– Ur-masak morfologikoki eta ekosistemikoki leheneratzeko eta hobetzeko teknikei buruzko azterlanak.

– Klima-aldaketak ur-masetan eta azpiegitura hidraulikoetan dituen ondorioak zehazteko ikerketak.

– Klima-aldaketaren ondorioak arindu edo/eta prebenitzeko aukerak.

– Ur-masen egoera eta ekologia-potentziala zehazteko metodologiak eta ur-masen gaineko neurrien programen eraginkortasunaren balioespena.

– Uretako ingurunean eta azpiegitura hidraulikoetan espezie inbaditzaileek duten eraginaren eta horiek erauztearen gaineko azterketak.

– Ibaien ibilbideetan fauna gora eta behera igarotzea hobetzeko azterketak.

– Ur-baliabideak kudeatu eta erabiltzean eraginkortasun teknikoa hobetzeko garapena.

– Lurrazpiko uraren arloko azterketak.

– Artikulu honen 1. atalean ezarritakoarekin bat datozen jarduerak.

2. artikulua.– Aurrekontu-baliabideak.

Ebazpen honen xederako laurehun mila (400.000) euroko aurrekontu-baliabidea dago, agindu honetako Lehen Xedapen Gehigarrian ezarritakoa kaltetu gabe.

3. artikulua.– Onuradunak.

Ebazpen honek arautzen dituen diru-laguntzen onuradun, erakunde hauek izan ahalko dira: udalak, mankomunitateak, partzuergoak, eta tokiko beste erakunde batzuk; horietako batek edo batzuek osatutako tokiko merkataritza-sozietateak; unibertsitateak; teknologia-zentro publiko edo pribatuak; eta Euskal Autonomia Erkidegoko elkarteak eta fundazioak. Diru-laguntza horien helburua urari eta ur-sistemei loturiko berrikuntza, ikerketa eta garapen ekimenen gastuak ordaintzea izango da.

4. artikulua.– Onuradunen betekizun orokorrak.

Diru-laguntza hori jaso ahal izateko, erakundeek baldintza hauek bete beharko dituzte:

– Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dituela egiaztatu.

– Aurkeztuko den proiektuan proposatutako helburuak beteko direla bermatzeko behar den egitura eta gaitasuna edukitzea.

– Estudios sobre contaminantes prioritarios y emergentes.

– Estudios sobre aplicación de técnicas de restauración, recuperación y mejora morfológica y ecosistémica de masas de agua.

– Investigaciones para establecer los efectos del cambio climático sobre las masas de agua y las infraestructuras hidráulicas.

– Alternativas para mitigar y/o prevenir los efectos derivados del cambio climático.

– Metodologías para la determinación de estado y potencial ecológico, y valoración de la eficacia de programas de medida sobre las masas de agua.

– Estudios sobre impacto y erradicación de especies invasoras en medio acuático e infraestructuras hidráulicas.

– Estudios para la mejora de la permeabilidad ascendente y descendente de la fauna en los cursos fluviales.

– Desarrollo de mejoras de la eficiencia técnica en la gestión y uso de recursos hídricos.

– Estudios en materia de aguas subterráneas.

– Otras actividades acordes con lo establecido en el apartado 1 del presente artículo.

Artículo 2.– Dotación presupuestaria.

Para el objeto de la presente Resolución, existe una dotación presupuestaria de cuatrocientos mil (400.000) euros, sin perjuicio de lo dispuesto en la Disposición Adicional Primera de la presente Resolución.

Artículo 3.– Entidades beneficiarias.

Podrán ser beneficiarias de las subvenciones reguladas por la presente Resolución los Ayuntamientos, Mancomunidades, Consorcios, y otras Entidades Locales, las sociedades mercantiles locales integradas por una o varias de ellas, universidades, centros tecnológicos públicos o privados, así como a las Asociaciones y Fundaciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco, cuyo objeto sea sufragar los gastos derivados de las iniciativas relacionadas con la innovación, investigación y desarrollo relacionados con el agua y los sistemas acuáticos.

Artículo 4.– Requisitos generales de las entidades beneficiarias.

Para poder optar a estas subvenciones, las entidades deberán reunir los siguientes requisitos:

– Acreditar que se hallan al corriente en el cumplimiento de las obligaciones tributarias, y con la Seguridad Social.

– Disponer de estructura y capacidad, suficientes para garantizar el cumplimiento de los objetivos propuestos en el proyecto a presentar.

– Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoko organoek eta horien erakunde autonomoek emandako lehenagoko diru-laguntzarik ez edukitzea justifikatzeko edo itzultzeko.

– Onuradun izaera lortzeko debekurik ez edukitzea; Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 13. artikuluaren 2. eta 3. ataletan daude adierazita debekuak.

– Erakunde eskatzaileak ezingo du sartuta egon diru-laguntzak edo laguntza publikoa jasotzea eragozten duen inolako debeku edo administrazio-zehapen edo zehapen penaletan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenean ezarritakoa barne.

– Kideen artean boluntarioak dituzten irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuek Boluntarioei buruzko ekainaren 25eko 17/1998 Legea bete beharko dute.

5. artikulua.– Beste diru-laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Agindu honen bidez araututako diru-laguntzak bateraezinak izango dira helburu bera izan eta aurrekontu publikoen kargura eman daitezkeen beste diru-laguntza batzuekin.

6. artikulua.– Eskariak aurkezteko epea eta lekua.

6.1.– Eskabideak aurkezteko epea hilabete batekoa izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

6.2.– Eskaerak Uraren Euskal Agentziari zuzendu ko zaizkio, eta leku hauetan aurkeztu ahal izango dira: Uraren Euskal Agentziaren Erregistro Orokorrean Orio kalean 1-3, 01010, Gasteiz (Araba), Agentzia horren Arroen bulegoetan, edota Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako lekuetako edozeinetan.

7. artikulua.– Dokumentazioa.

7.1.– Onuradun mota bakoitzari eska dakiokeen berariazko dokumentazioa gorabehera, eskatzaile guztiek aurkeztuko dute eskabidea, jarraian zerrendatuko diren agiriekin batera. Originalak edo kopiak aurkeztuko dira, eta, kopiak badira, behar bezala konpultsatuta egon beharko dute.

a) I. eranskinaren araberako eskaera-eredua, erakundearen arduradunak izenpetuta.

b) Diruz laguntzea eskatu den jarduera egitea onartu dela adieraziz, erakundeko organo eskudunak egindako ziurtagiria.

– No tener pendientes ni de justificación ni de reintegro subvenciones anteriores concedidas por los órganos de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus organismos autónomos.

– No estar incursos en las prohibiciones para obtener la condición de beneficiario, señaladas en los apartados 2 y 3 del artículo 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

– La entidad solicitante no podrá encontrarse incursa en ninguna prohibición o en sanción administrativa o penal que conlleve la imposibilidad de obtención de subvención o ayuda pública, incluida la establecida en la Disposición Final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

– Las entidades privadas sin ánimo de lucro que cuenten entre sus miembros con personas voluntarias, deberán regirse por la Ley 17/1998, de 25 de junio, del Voluntariado.

Artículo 5.– Compatibilidad con otras subvenciones.

La concesión de las subvenciones reguladas por la presente Resolución será incompatible con aquellas otras que, teniendo el mismo fin, pudieran ser otorgadas con cargo a presupuestos públicos.

Artículo 6.– Plazo y lugar de presentación de solicitudes.

6.1.– El plazo para la presentación de solicitudes será de un mes, y se iniciará el día siguiente al de la publicación de la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco.

6.2.– Las solicitudes, acompañadas de la documentación citada en el artículo siguiente, se dirigirán a la Agencia Vasca del Agua y se presentarán en el Registro General de dicha Agencia, sito en c/ Orio, 1-3, 01010, Vitoria (Álava); en las Oficinas de Cuencas de dicha Agencia, o en cualquiera de los lugares establecidos en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Artículo 7.– Documentación.

7.1.– Sin perjuicio de la documentación específica que se pueda exigir a cada tipo de beneficiario, en común para todos ellos, y con carácter general, los solicitantes, presentarán su solicitud junto con la documentación que se relaciona a continuación mediante originales o bien mediante copias en cuyo caso deberán hallarse debidamente compulsadas.

a) Modelo de solicitud según anexo I, que deberá ir suscrito por la persona responsable de la entidad.

b) Certificado expedido por el órgano competente de la entidad en la que conste la aprobación de la realización de la actuación para la que se solicita subvención.

c) Ogasunari eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta daudela egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua.

Zergen adierazpena aurkezteko betebeharrik ez duen erakundea baldin bada edo salbuetsita baldin badago, edo Gizarte Segurantzan alta emanda egon beharrik ez baldin badauka, zerga-betebeharretan edo Gizarte Segurantzan alta emanda egon beharrik ez daukala ziurtatzen duen adierazpena aurkeztu beharko du erakundearen ordezkariaren izenean, eta gainera, Ogasun Publikoko zergapekoen erregistroan eta Gizarte Segurantzan alta-egoeran dauden afiliatuen erregistroetan erakunde hori ez dagoela dioten administrazio-ziurtagiriak ere bai.

d) Erakunde eskatzailearen erantzukizuna duen pertsonaren zinpeko adierazpena, xede bererako dirulaguntzak edo laguntzak eskatu edo eman diren edo bideratzen ari diren eta zenbatekoak diren adieraziz.

e) Diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen administrazio-zehapenik edo zehapen penalik ez edukitzearen zinpeko adierazpena, ezta horretarako legezko inolako debekurik izan ere, sexu-bereizkeriagatiko debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen amaierako seigarren xedapenean zehaztu bezala.

f) Aurrekontuan nahikoa zuzkidura dagoela dioen erantzukizunezko adierazpena: gutxienez, eskatutako aurrekontuaren eta diruz laguntzeko gastuaren arteko aldea ordaintzeko lain.

g) Azalpenen memoria, gutxienez hauek dituela:

– Jardueraren izenburua.

– Jardueraren definizioa.

– Proposamena diru-laguntzaren helbururako egokia dela azaltzeko justifikazioa.

– Aurrekontua.

– Jarduera gauzatzeko epea eta lanen kronograma.

7.2.– Aurreko atalean eskatutako dokumentazio orokorraz gain, elkarteek eta fundazioek eskaera bat aurkeztuko dute, ondoko zerrendako agiriekin batera. Originalak edo kopiak aurkeztuko dira, eta, kopiak badira, behar bezala konpultsatuta egon beharko dute.

a) Eraketaren eskritura, eta, hala badagokio, Identifikazio Fiskaleko Txartelaren fotokopia.

b) Izaera juridikoaren arabera Erregistroan duen inskripzioaren ziurtagiri eguneratua eta erregistroan erregistratuta dauden estatutuen kopia.

c) Kideen artean boluntarioak dituzten irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuen kasuan, Boluntac) Certificado actualizado de hallarse al corriente en los pagos con Hacienda y Seguridad Social.

En el caso de que la entidad no se halle sujeta o esté exenta de la obligación de presentar declaración a efectos tributarios o no esté obligada a darse de alta en la Seguridad Social, deberá presentar declaración responsable del/de la representante de la entidad en la que conste que la misma no está obligada a darse de alta a efectos tributarios o de Seguridad Social, además de las certificaciones administrativas correspondientes, referidas a la falta de constancia de la entidad en los respectivos registros de contribuyentes a la Hacienda Pública y de afiliados y en alta en la Seguridad Social.

d) Declaración responsable de la entidad solicitante relativa a otras subvenciones o ayudas solicitadas para la misma finalidad, concedidas o en trámite y su importe.

e) Declaración responsable de no estar sancionada penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni de hallarse incursa en prohibición legal alguna que la inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por discriminación de sexo de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

f) Declaración responsable de capacidad presupuestaria para, al menos, la diferencia entre el presupuesto solicitado y el gasto subvencionable.

g) Memoria explicativa, que contendrá como mínimo:

– Título de la actuación.

– Definición de la actuación.

– Justificación de adecuación de la propuesta al objeto de la subvención.

– Presupuesto.

– Plazo de ejecución, y cronograma de los trabajos.

7.2.– Sin perjuicio de la documentación general exigida en el apartado anterior, las asociaciones y fundaciones, presentarán su solicitud junto con la documentación siguiente mediante originales o bien mediante copias en cuyo caso deberán hallarse debidamente compulsadas:

a) Escritura de constitución y, en su caso, fotocopia de la Tarjeta de Identificación Fiscal.

b) Certificado actualizado de la Inscripción en el Registro que corresponda según su naturaleza jurídica y copia de los estatutos inscritos en el mismo.

c) En el caso de las entidades privadas sin ánimo de lucro que cuenten entre sus miembros con perso-

riotza Erakundeen Errolda Orokorrean izena emanda egotearen ziurtagiria, Boluntariotzako Erakundeen Errolda Orokorraren funtzionamendu-araudia onartu eta boluntariotzari buruzko zenbait alderdi arautzen dituen irailaren 1eko 169/2000 Dekretuan horren inguruan ezarritakoaren arabera.

d) Erakunde eskatzailea fundazioa denean, Babesletzan aurkeztutako azken kontu-ematearen egiaztagiria.

7.3.– Eskaera eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta akatsak dituela edo osatu gabea dela ikusiz gero, eskabidea egin duen erakundeari hamar laneguneko epea emango zaio, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita, akatsak zuzentzeko edo beharrezko agiriak aurkezteko. Dokumentazioa era egokian zuzentzen ez bada, eskabideari uko egin diola ulertuko da; horretarako, Zuzendari Nagusiak ebazpena emango du, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 42. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

7.4.– Arestian esandakoaz gain, Agentziak eskabidea behar bezala ulertzeko, ebaluatzeko eta izapidetzeko beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio edo/eta informazio guztia eskatu ahal izango die erakunde eskatzaileei. Arau honetan berariaz ezarri ez den guztian Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legean ezarritakoa aplikatuko da.

8. artikulua.– Datuak babestea.

Agindu honetan aurreikusitako diru-laguntzak eskatzerakoan aurkezten diren datuak fitxategi automatizatu batean sartuko dira, Datu Pertsonalak babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa kontuan izanik. Fitxategi horretan bildutako datuak ezin izango zaizkie hirugarren batzuei edo erakundeei laga, eta fitxategia Uraren Euskal Agentziak erakunde eskatzaileei ematen dizkien laguntzak kudeatzeko baino ez da erabiliko. Hala nahi badutenek, legean aurreikusten diren sartzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideez baliatu daitezke, laguntzalerro bakoitza kudeatzen duen organoari zuzendutako idatzi baten bidez.

9. artikulua.– Diru-laguntzak emateko prozedura.

Deialdi horretako diru-laguntzak lehiaketa bidez emango dira. Hori dela eta, diru-laguntzak emateko, jasotako eskaerak parekatu eta hurrenkera bat ezarriko da, eskaera bakoitzak lortutako puntuen arabera. Ondoko atalean adierazitako balioespen-irizpideetan oinarrituta emango dira puntuak.

nas voluntarias, certificado de inscripción en el Censo General de Organizaciones del Voluntariado, de conformidad con lo dispuesto al efecto en el Decreto 169/2000, de 1 de septiembre, por el que se aprueba el Reglamento de funcionamiento del Censo General de Organizaciones del Voluntariado y se regulan determinados aspectos relativos al voluntariado.

d) En el caso en el que la entidad solicitante tuviera naturaleza jurídica de Fundación, acreditación documental de la última rendición de cuentas presentada al Protectorado.

7.3.– En el caso de que analizada la solicitud y la documentación requerida, se observara la existencia de defectos o fuese incompleta, se requerirá a la entidad peticionaria para que, en el plazo de diez días hábiles, a contar desde el día siguiente a la recepción de la correspondiente notificación, subsane la falta o aporte los documentos preceptivos, indicándole que de no hacerlo, se le tendrá por desistida de su petición, previa resolución del Director General, dictada en los términos previstos en el artículo 42 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

7.4.– Sin perjuicio de lo anterior, la Agencia podrá requerir a la entidad solicitante cuanta documentación y/o información complementaria considere necesaria para la adecuada comprensión, evaluación y tramitación de la solicitud presentada, señalándose que, en lo no expresamente previsto en la presente norma, resultará de aplicación lo previsto en la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Artículo 8.– Protección de datos.

Los datos que se aporten al solicitar las subvenciones previstas en esta Orden serán incorporados para el tratamiento de un fichero automatizado sujeto a lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de Protección de Datos de Carácter Personal. El uso de dicho fichero, cuyos datos no serán objeto de cesión a terceras personas u organizaciones, se circunscribe al uso exclusivo de la gestión de las ayudas a las organizaciones solicitantes por parte de la Agencia Vasca del Agua. Quienes lo deseen, pueden ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, previstos por la Ley, dirigiendo un escrito al órgano gestor de cada una de las líneas de ayudas.

Artículo 9.– Procedimiento de concesión.

Las subvenciones objeto de la presente convocatoria se concederán mediante el procedimiento de concurso. Ello supone que para la adjudicación de las subvenciones correspondientes se compararán las solicitudes recibidas y se establecerá un orden de prelación entre las mismas atendiendo a la puntuación obtenida por cada una ellas en base a los criterios de valoración señalados en el apartado siguiente.

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, 9. atalean ezarritako Balioespen Batzordeak aztertuko ditu, eta aurkeztutako eskabideen artean zenbatekoak banatzeko proposamen bat egingo du.

10. artikulua.– Balioespen Batzordea.

Balioespen Batzorde bat eratuko da, eta Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiak izendatuko du. Batzorde horren zereginak hauek izango dira: ebazpen honetako 11. artikuluan ezarritako esleipen-irizpideak aintzat hartu eta aurkeztutako eskabideak aztertzea eta ebaluatzea, eta Zuzendari Nagusiari aurkeztutako zaion ebazpen-proposamena egitea.

Batzordea honako hauek eratuko dute:

– Uraren Euskal Agentziak hartarako izendatutako zuzendari, arduradun eta teknikari bat.

11. artikulua.– Balioespen-irizpideak eta laguntzen kuantifikazioa.

11.1.– Ebazpen honen babesean emango den dirulaguntza bakoitzaren zenbatekoa ezingo da izan diruz lagundu daitekeen gastu egiaztatuaren % 80 baino handiagokoa, BEZa barne, eta egitasmo bakoitzeko ehun mila (100.000) euro baino gehiagokoa ere ez.

11.2.– Halaber, eskabide bakarra onartuko da erakundeko.

11.3.– Egitasmo edo jarduera bakoitzari dagokion puntuazioa baremo honen arabera erabakiko da:

a) Memoria eta metodologia (60 punturaino).

b) Lanen kronograma (20 punturaino).

c) Proposamena diru-laguntzaren xedeari zenbateraino egokitzen zaion (20 punturaino).

12. artikulua.– Ebazpena.

12.1.– Balorazio Batzordeak igorritako proposamena ikusirik, Zuzendari Nagusiak diru-laguntzak emateko edo ukatzeko ebazpen arrazoitua egingo du.

12.2.– Ebazpena gehienez ere hilabete bateko epean eman eta jakinaraziko da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik kontatzen hasita. Epealdi horretan berariazko ebazpenik izan ezean, eskabideak ezetsi egin direla ulertu beharko dute interesdunek, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 44. artikuluaren arabera.

12.3.– Aurreikusitako laguntzei buruzko ebazpena banan-banan jakinarazi behar bada ere, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da laguntza jasoko duten erakundeen zerrenda, laguntzaren zenbatekoa zehaztuta.

Finalizado el plazo de presentación de solicitudes, la Comisión de Valoración prevista en el apartado 9 analizará las mismas y elaborará una propuesta de asignación de importes entre las solicitudes presentadas.

Artículo 10.– Comisión de Valoración.

Se constituirá una Comisión de Valoración, nombrada por el Director General de la Agencia Vasca del Agua, que, tendrá como funciones el análisis y la evaluación de las solicitudes presentadas, teniendo en cuenta los criterios de adjudicación establecidos en el artículo 11 de la presente Resolución, así como la elaboración de la correspondiente Propuesta de resolución que elevará al Director General.

La Comisión estará integrada por:

– Un director, un responsable y un técnico de la Agencia Vasca del Agua designados al efecto.

Artículo 11.– Criterios de valoración y cuantificación de las ayudas.

11.1.– El importe de cada una de las subvenciones que se concedan al amparo de la presente Resolución no podrá exceder del 80%, IVA incluido, del gasto subvencionable acreditado, ni superar la cantidad de cien mil (100.000) euros por cada proyecto.

11.2.– Así mismo, se aceptará únicamente una solicitud por entidad.

11.3.– La puntuación correspondiente a cada proyecto o actividad se determinará aplicando el siguiente baremo:

a) Memoria y metodología (hasta 60 puntos).

b) Cronograma de los trabajos (hasta 20 puntos).

c) Grado de adecuación de la propuesta al objeto de la subvención (hasta 20 puntos).

Artículo 12.– Resolución.

12.1.– A la vista de la propuesta elevada por la Comisión de Valoración, el Director General dictará Resolución motivada de concesión o denegación de las subvenciones.

12.2.– La resolución se dictará y notificará, en el plazo máximo de un mes desde la finalización del plazo de presentación de solicitudes, transcurrido el cual sin resolución expresa, los interesados podrán entender desestimadas sus solicitudes de conformidad con lo dispuesto en el artículo 44 de la Ley 30/1992 de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

12.3.– Sin perjuicio de la notificación individualizada de la resolución de las ayudas previstas, se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco una relación de las entidades que hayan resultado beneficiarias de las ayudas concedidas, con la indicación de las cuantías concedidas.

13. artikulua.– Erakunde onuradunaren betebeharrak.

Ebazpen honetan araututako laguntzak jasotzen dituztenek honako betebehar hauek izango dituzte:

a) Emandako laguntza onartzea. Alde horretatik, diru-laguntza eman zaiela jakinarazten duen ebazpena jaso eta hamabost eguneko epean onuradunek berariaz eta idatziz uko egiten ez badute, onartu egin dutela ulertuko da.

b) Diru-laguntza eman den xederako erabiltzea.

c) Uraren Euskal Agentziaren esku jarri behar dituzte inbertsioa eta gastuak egin direla frogatzeko behar diren agiri guztiak.

d) Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari informazioa ematea, jasotako dirulaguntzak direla eta informazioa eska diezaiotenean, beraien fiskalizazio-zereginak betetzeko.

e) Administrazio baten edo erakunde publiko zein pribatu baten beste laguntza edo diru-laguntzaren bat lortuz gero helburu bera betetzeko, horren berri eman behar diote idatziz Uraren Euskal Agentziari.

f) Diru-laguntza emateko orduan aintzat hartu den egoeretako edozeinetan –dela egoera subjektiboa nahiz objektiboa– aldaketarik gertatuz gero, Uraren Euskal Agentziari jakinarazi beharko zaio.

g) Uraren Euskal Agentziak proiektua finantzatu duela adieraziko da, identifikazio-karteletan, iragarkietan eta edozein publizitate edo seinale motatan.

h) Egindako jardueren eta horien ondorioen inguruan eskatzen diren agiri guztiak Uraren Euskal Agentziari bidaltzea.

i) Uraren Euskal Agentziari lagatzea, doan eta ez modu baztertzailean, aurkeztutako agirietan dagoen materiala erabiltzeko eskubidea, zabalkundea egin edo/eta argitaratzeko, baliabide eta formatu bibliografiko, ikus-entzunezko, informatiko edo teknika erabiltzeko aukera ematen duen edozeinetan. Material horrek indarrean dagoen legeria bete beharko du: jabetza intelektualarena, egileen eskubideena, legegordailuarena, banaketarena, etab.

j) Lanen kasuan, kontratatzea, zuzentzea eta teknikoki ikuskatzea, eta lanak gauzatzeko erantzukizuna hartzea, indarrean dagoen araudiaren arabera.

14. artikulua.– Laguntzak gauzatzeko eta egiaztatzeko gehienezko epeak.

14.1.–Diruz lagundutako ekintzak 2011n hasiko dira, eta aurkeztutako gauzatze-programan ezarrita-

Artículo 13.– Obligaciones de las entidades beneficiarias.

Lan entidades beneficiarias de las ayudas reguladas en la presente Resolución, deberán cumplir, en todo caso, las siguientes obligaciones:

a) Aceptar la subvención concedida. En este sentido, si en el plazo de 15 días tras la fecha de recepción de la notificación de la Resolución de concesión de la subvención, la beneficiaria no renunciara expresamente y por escrito a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada.

b) Utilizar la ayuda para el concreto destino para el que ha sido concedida.

c) Poner a disposición de la Agencia Vasca del Agua, toda la documentación necesaria para que éstos puedan verificar la ejecución de la inversión y la realización del gasto.

d) Facilitar a la Oficina de Control Económico y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, cuanta información le sea requerida en el ejercicio de sus funciones de fiscalización, del destino de las ayudas recibidas.

e) Comunicar a la Agencia Vasca del Agua la obtención de otras subvenciones y ayudas para la misma finalidad procedentes de cualesquiera administraciones o entes, tanto públicos como privados.

f) Comunicar a la Agencia Vasca del Agua la modificación de cualquier circunstancia, tanto subjetiva como objetiva, que se haya tenido en cuenta para la concesión de la subvención.

g) Hacer constar la participación de la Agencia Vasca del Agua en la financiación del proyecto, en los carteles identificativos, anuncios y cualquier clase de publicidad o señalización.

h) Remitir a la Agencia Vasca del Agua cuanta documentación le sea requerida, relativa a las actuaciones realizadas y a su repercusión.

i) Ceder, con carácter gratuito y no exclusivo, a la Agencia Vasca del Agua, el derecho de utilización material contenido en la documentación presentada, para su divulgación y/o publicación en cualesquiera medios y formatos bibliográficos, audiovisuales, informáticos o que permita el uso de la técnica. Dicho material, habrá de cumplir con la legalidad vigente en todo lo relativo a la propiedad intelectual, derechos de autor, depósito legal, distribución, etc.

j) En el caso de obras, contratar, dirigir e inspeccionar técnicamente, así como asumir la responsabilidad de la ejecución de las obras, conforme a la normativa vigente.

Artículo 14.– Plazos máximos de ejecución y justificación de las ayudas.

14.1.–Las actuaciones subvencionadas deberán iniciarse durante el año 2011 y se desarrollarán confor-

koaren arabera garatuko dira. Nolanahi ere, ekintzak 2011ko abenduaren 31 baino lehen amaitu beharko dira.

14.2.– Epe hori luzatu egin ahalko da Uraren Euskal Agentziaren Zuzendari Nagusiaren ebazpen baten bitartez. Horretarako, erakunde interesdunak luzapena eskatu beharko du, aurreko puntuan emandako epea amaitu baino lehen. Eskabidearekin batera, luzapenerako arrazoiak justifikatzeko idatzi bat aurkeztuko du, baita nahi duen epearen proposamena ere. Nolanahi ere, epe berri horren muga, epearen erdia luza dezake, gehienez ere.

14.3.– Laguntzak eman ziren xederako erabili direla frogatzeko, ondoko agiri hauek aurkeztuko zaizkio Uraren Euskal Agentziari:

a) Gauzatutako jardueren justifikazio-memoria; bertan, proiektua betetzeari eta horren gauzatzemailari buruzko informazioa bilduko da.

b) Ordainketaren fakturak eta ziurtagiriak. Agiri originalak edo fotokopia konpultsatua bakarrik onartuko da. Baliagarria izateko, faktura orok 2011koa beharko du izan.

c) Langileei dagozkien gastuei dagokienez, eredu ofizialaren eta Gizarte Segurantzako kotizazioko aldizkari ofizialen araberako soldata-ordainagirien originalen bitartez egiaztatzen direnak.

14.4.– Inbertsioa egin izanaren justifikazio-agiriak aurkeztu beharko zaizkio, Uraren Euskal Agentzian, ezarritako jarduerak gauzatzeko epemugatik gehienez hilabeteko (1) epean.

15. artikulua.– Emandako diru-laguntza aldatzea.

15.1.– Diruz lagundutako proiektua gauzatzearen behin betiko kostua diru-laguntza emateko aurkeztutako aurrekontua baino txikiagoa bada, emango den zenbatekoa murriztu egingo da proportzio berean, eta ehunekoa oinarri berriari ezarriko zaio.

15.2.– Aurkeztutako proiektuaren aurrekontua handiagoa bada, ordea, emandako laguntza ez da handituko.

15.3.– Aurrekontua handitzerik ez dakarten proiektu-aldaketak 18. artikuluan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira.

16. artikulua.– Ordainketa.

16.1.– Diru-laguntzen zenbatekoa ordainketa bakarrean ordainduko da osorik, aurreko puntuan aipatzen diren agirien bidez gastua edo inbertsioa justifikatu ondoren. Ez da diru-laguntzen aurrerakinik emango.

me a lo previsto en el programa de ejecución presentado. En cualquier caso, las actuaciones deberán finalizarse antes del 31 de diciembre de 2011.

14.2.– Dicho plazo podrá ser prorrogado mediante resolución del Director General de la Agencia Vasca del Agua. Para ello, la entidad interesada deberá presentar una solicitud de prórroga previamente a la finalización del plazo señalado en el punto precedente, a la que acompañará un escrito justificativo de las razones que motivan dicha solicitud, así como una propuesta del nuevo plazo previsto. En cualquier caso, este nuevo plazo no podrá exceder de la mitad de los plazos inicialmente establecidos.

14.3.– La justificación del destino de las ayudas para la finalidad para la que se otorgaron, se realizará, mediante la presentación, ante la Agencia Vasca del Agua de la siguiente documentación:

a) Memoria justificativa de las actuaciones realizadas que contenga información relativa al cumplimiento del proyecto y a su grado ejecución.

b) Facturas y justificantes del pago. Tan sólo se aceptará documentación original o fotocopia compulsada. Toda factura para ser válida deberá estar expedida durante el 2011.

c) Para los gastos correspondientes al personal laboral los justificados mediante recibos de salarios ajustados al modelo oficial y a los boletines oficiales de cotización a la Seguridad Social.

14.4.– La documentación justificativa de la ejecución de la inversión se deberá entregar en la Agencia Vasca del Agua en el plazo máximo de un (1) mes a contar desde el plazo límite para la ejecución de las actuaciones previstas.

Artículo 15.– Modificación de la subvención concedida.

15.1.– En el caso de que el coste definitivo de la ejecución del proyecto subvencionado fuera inferior al presupuesto sobre el que se concedió la subvención, la cuantía concedida será minorada en la proporción que resulte, aplicándose el porcentaje sobre la nueva base.

15.2.– La modificación al alza del presupuesto del proyecto presentado, no supondrá incremento en la ayuda concedida.

15.3.– Las modificaciones de proyecto que no supongan incremento del presupuesto se regirán por lo dispuesto en el artículo 18.

Artículo 16.– Pago.

16.1.– El importe de las subvenciones se hará efectivo en pago único por la totalidad del importe correspondiente, previa justificación del gasto o inversión mediante los documentos a los que hace referencia en el punto anterior. No se concederán anticipos de pagos de las ayudas.

16.2.– Diru-laguntzak onartzeko eta, hala badagokio, onuradunei ordaintzeko, ezinbestekoa izango da, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomiadunek emandako antzeko diru-laguntzaren bat dela-eta, oraindik itzulketa edo zigor prozeduraren bat izapidetzen ari bada, prozedura horri amaiera ematea.

17. artikulua.– Diru-laguntzaren baldintzak aldatzea.

Diru-laguntza esleitzeko kontuan hartutako baldintzetan aldakuntzaren bat eginez gero, baldin eta deialdiaren xedea betetzat jotzen bada eta, hala dagokionean, deialdi honetan esleitutako diru-laguntzez gain beste erakunde publiko zein pribatu baten diru-laguntzak edo laguntzak jaso badira, horrek diru-laguntzak ematen dituen ebazpena aldatzea ekarri ahal izango du. Ondorio horietarako, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiak dagokion ordainketa-ebazpena jaulkiko du, emaniko diru-laguntzaren kopurua doitzeko, hala dagokionean; horrek eragin lezake lortutako gehiegizko diru-kopurua itzuli beharra.

18. artikulua.– Betebeharrak ez betetzeak eta laguntza itzultzeko prozedura.

18.1.– Diru-laguntza emateko kontuan izandako baldintzak betetzen ez direla egiaztatuz gero, jasotako dirua eta honek sortutako legezko interesak Euskal Herriko Diruzaintza Orokorrari itzuliko zaizkio, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruz Legeak (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsi zenak) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura ematen diren diru-laguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko araubide orokorra erregulatzen duen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuak diotenaren arabera.

Era berean, diru-laguntza honen xede den ekintzaren kostuaren gaindik lortutako soberakina itzuli egin beharko da. Horrez gain, dagozkion zigorrak jarri ahal izango dira, eta kalte-galeren ordainak eta, hala dagokionean, erantzukizun zibila eskatu ahal izango da.

Dagozkien ondorioei begira, zenbateko horiek sarrera publikotzat joko dira.

18.2.– Betebeharren zati bat bete ez eta, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusiaren iritziz, aurkeztu eta onartutako proiektu bat osorik hutsaltzen bada, laguntza osorik ordaindu beharrik ez izatea ekarri lezake.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Uraren Euskal Agentziako aurrekontu-baliabideak kontuan izanda, 2. artikuluan adierazitako diru-

16.2.– La concesión y, en su caso, el pago de estas subvenciones a los beneficiarios, quedará condicionado a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de las ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación.

Artículo 17.– Alteración de las condiciones de la subvención.

Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, siempre que se entienda cumplido el objetivo de ésta y, en su caso, la obtención concurrente de otras subvenciones y ayudas concedidas por cualquier otra entidad pública o privada, podrá dar lugar a la modificación de la Resolución de concesión de las subvenciones. A estos efectos del Director General de la Agencia Vasca del Agua dictará la oportuna Resolución de liquidación, en la que se reajustarán los importes de las subvenciones concedidas, pudiendo suponer, en los casos que así procediese, la devolución de los importes recibidos en exceso.

Artículo 18.– Incumplimientos y procedimiento de reintegro.

18.1.– La constatación de la existencia de cualquier supuesto de incumplimiento de las condiciones que motivaren la concesión de la subvención dará lugar, de conformidad y en los términos establecidos en la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobado por Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, así como en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, por el que se regula el régimen general de garantías y reintegros de las subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, a la obligación de reintegrar a la Tesorería General del País Vasco las cantidades percibidas más los intereses legales que procedan.

Igualmente, procederá el reintegro del exceso obtenido sobre el coste de la actividad objeto de la presente subvención, sin perjuicio de las posibles sanciones que puedan imponerse, así como de las indemnizaciones por daños y perjuicios que pudieran exigirse y, en su caso, de responsabilidad penal.

Las referidas cantidades tendrán consideración de ingresos públicos a los efectos pertinentes.

18.2.– El incumplimiento parcial que desvirtúe en su totalidad, a juicio del Director General de la Agencia Vasca del Agua un proyecto presentado y aprobado, podrá implicar la no exigibilidad del abono de la totalidad de la ayuda.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

El importe global consignado en el artículo 2 podrá ser modificado, teniendo en cuenta la cuantía

kopurua aldatu egin daiteke, eskatutako diru-laguntza kopurua kontuan hartuta. Kopuru hori aldatzea edo ez aldatzea diru-laguntzei buruzko ebazpena hartu aurretik erabakiko da. Halakorik egingo balitz, Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiaren ebazpen bidez jakinaraziko da.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Ebazpen honetan aurreikusi gabekoetarako, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 32/1992 Legean eta Euskal Herriko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onesten duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan jasotakoa aplikatuko da.

Bigarrena.– Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du eragina.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko martxoaren 21a.

Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusia,
IÑAKI URRIZALQUI OROZ.

total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias de la Agencia Vasca del Agua y con carácter previo a la resolución de las mismas, dándose publicidad de este extremo mediante la correspondiente resolución del Director General de la Agencia.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– En lo no previsto en la presente Resolución será de aplicación la Ley 30/1992, de 26 de noviembre de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.

Segunda.– La presente Resolución surtirá efectos desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 21 de marzo de 2011.

El Director General de la Agencia Vasca del Agua,
IÑAKI URRIZALQUI OROZ.

I. ERASKINA / *ANEXO I*

ESKABIDEA / *SOLICITUD*

URARI ETA UR-SISTEMEI LOTURIKO BERRIKUNTZA, IKERKETA ETA GARAPEN PROGRAMETARAKO ETA EGITASMOETARAKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA
CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES PARA PROGRAMAS Y PROYECTOS DE INNOVACIÓN, INVESTIGACIÓN Y DESARROLLO RELACIONADOS CON EL AGUA Y LOS SISTEMAS ACUÁTICOS

Ebazpena, 2011ko martxoaren 21ekoa / *Resolución de 21 de marzo de 2011*		
Erakunde eskatzailea *Entidad solicitante*		
Erakunde eskatzailearen arduraduna *Responsable de la entidad solicitante*		
Helbidea *Dirección*		
Telefonoa *Teléfono*	Fax-a *Fax*	E-mail *E-mail*
Proiektuaren izenburua *Título del proyecto*		
Proiektuaren kostua *Costo del proyecto*		

AGIRI NAGUSIAK, 6.2 artikulua / *DOCUMENTACIÓN GENERAL, artículo 6.2*	
☐	Erakunde eskatzaileko organo eskudunak izenpetutako eskabidea *Solicitud suscrita por el órgano competente de la entidad solicitante*
☐	Erakundeko organo eskudunak diru-laguntza eskatzeko erabakia hartu duela adierazten duen ziurtagiria *Certificado en el que conste la adopción del acuerdo de solicitar la subvención, por el órgano competente de la entidad*
☐	Ogasunari eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta daudela egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratua *Certificado actualizado de hallarse al corriente en los pagos con Hacienda y Seguridad Social*
☐	Diru-laguntzak edo laguntzak eskatu edo eman diren edo bideratzen ari diren eta zenbatekoak diren adieraziz *Declaración responsable de la persona responsable de la entidad solicitante relativa a otras subvenciones o ayudas solicitadas*
☐	Diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen administrazio-zehapenik edo zehapen penalik ez edukitzearen zinpeko adierazpena *Declaración responsable de no estar sancionada penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas*
☐	Aurrekontuko gaitasunaren erantzukizunezko adierazpena *Declaración responsable de capacidad presupuestaria*
☐	Azalpenezko memoria *Memoria explicativa*

ELKARTEEN ETA FUNDAZIOEN AGIRIAK, 6.3. artikulua *DOCUMENTACIÓN ASOCIACIONES Y FUNDACIONES, artículo 6.3*	
☐	Eraketaren eskritura, eta, hala badagokio, Identifikazio Fiskaleko Txartelaren fotokopia *Escritura de constitución y, en su caso, fotocopia de la Tarjeta de Identificación Fiscal*
☐	Izaera juridikoaren arabera Erregistroan duen inskripzioaren ziurtagiri eguneratua eta erregistroan erregistratuta dauden estatutuen kopia *Certificado actualizado de la Inscripción en el Registro que corresponda según su naturaleza jurídica y copia de los estatutos inscritos en el mismo*
☐	Boluntariotza Erakundeen Errolda Orokorrean izena emanda egotearen ziurtagiria *Certificado de inscripción en el Censo General de Organizaciones del Voluntariado*
☐	Babesletzan aurkeztutako azken kontu-ematearen egiaztagiria *Acreditación documental de la última rendición de cuentas presentada al Protectorado*

Erakunde eskatzailearen sinadura eta zigilua / *Firma y sello de la entidad solicitante*